

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Epea irekitzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2022ko ordainagiria kobratzeko

Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2022ko errolda onartu denez, ordainagiriak kobratzeko moduan jartzeko epea hasiko da 2022ko uztailaren 15etik aurrera (lehenengo ordainketa: ordainagiriaren ehuneko 50).

I. ORADINTZEKO EPEA.

a) Borondatezko epea: 2022ko uztailaren 15etik abuztuaren 31ra.

b) Betearazte aldia: 2022ko irailaren 1etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte aldiko errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra adierazitako epeetan.

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA.

a) Banku erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetik ordainketa helbideratuta daukatenez ez dute inolako izapiderik egin beharko; udala arduratuko da izapidetzeaz eta 2022ko uztailaren 22an egingo da ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez aukera hauek dituzte zerga ordaintzeko.

– Erakundeak: Kutxabank eta Rural Kutxa:

– Kutxazainean ordaindu, txartela edo libreta erabiliz.

– Urruneko bankuaren bidez ordaindu.

– Bulegoren bateko leihatilan ordaindu (ordutegi jakin bati lotuta).

– Online ordaindu: Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidean, txartela erabiliz.

– Udal bulegoetan.

III. GOMENDIOAK.

Bantuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Aiarako Udalarari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2022ko ekainaren 14a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA